



**2017KO MAIATZAREN 30EKO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko maiatzaren hogeita hamarrean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Amagoia Naldaiz Mingo, Jabier Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, eta Urtzi Iruin Arruti.

Iñaki Estensoro Sarasola zinegotzia ez da bertaratu bere ezin etorriaz ohartarazi duelarik.

Leire Mendia Arana zinegotzia ez da bertaratu eta bere ezin etorriaz ez du ohartarazi.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko apirilaren 25ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- AURTENGO EKITALDIAN ONARTUTAKO KREDITU ALDAKETEI DAGOKIONEAN, 1/2003 FORU ARAUAREN 5. ARTIKULUAREN 3. PARAGRAFOAN AURREIKUSITAKO KOMUNIKAZIOA UDALBATZARI.-

Udal honek bi kreditu aldaketa onartu ditu ari gareneko 2017ko ekitaldi honetan, kreditu gehigarri bidezko 1 zbk.duna eta kreditu txertaketa bidezko 1 zbk.duna, hurrenez hurren. Bietan ere 2017rako ezarritako aurrekontu egonkortasunaren araua ez da betetzen eta bietan ere ez betetze hori diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioa da.

Hau honela, eta 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan aurreikusitakoa ikusita, horren berri emanez komunikazioa egiten zaio osoko bilkurari eta komunikazio horri kontuhartzailearen txostena eransten zaio.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.



IV.- 2016KO KONTU OROKORRA.-

2016 ekitaldiko Kontu Orokorra, Kontuetarako Batzorde Bereziak 2017ko apirilaren 10ean egindako bilkuran aztertu eta informatua izan zen.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2017ko apirilaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako partaide guztien aldeko botoekin, 2016 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

Kontu Orokor honek udalaren 2016ko Kontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarte anonimoaren 2016ko urteko kontuak hartzen ditu barne.

V.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Kreditu aldaketa honen partida garrantzitsuenak San Prudentzio, Mikelar eta San Inazio urbanizazio lanak eta Hiribarrenen komunak dira eta guztira 710.000 euro dira.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du lehen kreditu aldaketan milioi bat eta berrehun eta hogeita hiru mila euroko gastua onartu zela, Gurutzeko urbanizazio lanak egiteko, eta hori aurretik ohartarazi zen zerbait zela eta ontzat eman zutela, eta orain beste zazpiehun eta hamar mila euroko gastua onartzea proposatzen dela beste hainbat proiektutarako. Gehitzen du proiektuak gaizki ez dituztela ikusten baina gastua handia dela eta gauzak neurrian egitea zuzentzeko ikusten dutela eta hori kontuan izanda, beraiek abstenitu egingo direla.

Alkateak esaten du proiektuak egiteko ados baldin bagaude ba egin egin behar direla. Proiektu hauek bere prozesua jarraitzen dutela, iaz proiektuak idatzi zirela eta orain prozesu horri jarraipena ematen zaiola.

Hau honela, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta bost abstentzios (EH Bildu), honako erabakiak hartzen ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:



KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	710.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		710.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	710.000,00 €
GUZTIRA		710.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VI.- GURUTZEKO URBANIZAZIO LANEN ESLEIPENA.-

Udal Osoko Bilkurak, 2017ko otsailaren 28an egindako bilkuran, Gurutze 1-6 guneko birurbanizazio proiektuaren laugarren faseko obrak esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki zuen.


Lizitazioaren iragarkia 2017ko martxoaren 21eko G.A.O.n argitaratu zen eta horretarako irekitako denboraldian 4 enpresen proposamenak jaso ziren.

Aurkeztutako proposamenen dokumentazio administratiboa aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiak denak onartzea erabaki zuen.

Dokumentazio teknikoak aztertu ondoren, hauek dira beraiengatik Kontratazio Mahaiak emandako puntuaketak:

ENPRESA	P. teknikoa
UTE Iparragirre-Orsa-Iturrioz	30
Otegi Gaztañaga Eraikuntzak SL	30
Construcciones Artzamendi SL	16
VUSA	24

Ekonomi proposamenak aztertu ondoren, hau dira beraiengatik emandako puntuaketak:



ENPRESA	PROPOSAMEN EKONOMIKOA			GARANTIA		GUZTIRA
	Zenbatekoa	Baja	Puntuak	Propos.	Puntuak	
UTE IPARRAGIRRE-ORSA-ITURRIOZ	569.904,29	25,32	51,3	5 urte	12,0	63,32
OTEGI GAZTAÑAGA	572.327,85	25,01	51,0	5 urte	12,0	63,01
ARTZAMENDI	616.143,45	19,26	44,3	5 urte	12,0	56,31
VUSA	572.333,31	25,01	51,0	5 urte	12,0	63,01

LIZITAZIO OINARRIA 763.163,80

Ondorioz, puntuaketa, guztira, ondorengoa da:

ENPRESA	PROP. TEKNIKOA	PROPOSAMEN EKONOMIKOA			GARANTIA		GUZTIRA
	Puntuak	Zenbatekoa	Baja	Puntuak	Propos.	Puntuak	
UTE IPARRAGIRRE-ORSA-ITURRIOZ	30,00	569.904,29	25,32	51,3	5 urte	12,0	93,32
OTEGI GAZTAÑAGA	30,00	572.327,85	25,01	51,0	5 urte	12,0	93,01
ARTZAMENDI	16,00	616.143,45	19,26	44,3	5 urte	12,0	72,31
VUSA	24,00	572.333,31	25,01	51,0	5 urte	12,0	87,01

LIZITAZIO OINARRIA 763.163,80

Hau honela, kontratazio mahaiak, Lazkaoko Gurutze 1-6ko Birrurbanizazio proiektuko lanen laugarren faseko lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak SL, Excavaciones y Transportes Orsa SL eta Construcciones Iturrioz SAK osatutako Aldi Baterako Enpresen Batura (ABEB)ren aldeko esleipen proposamena egin du.

Kontratazio Mahaiak egindako proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako erabakia hartu du:

"Gurutze 1-6 birrurbanizazio proiektuaren 4. fasea" proiektuaren lanak burutzeko kontratua Iparragirre S.L. - ORSA S.L. - Excavaciones Iturrioz S.A. A.E.B.ri esleitzea. Kontratuaren prezioa 569.904,29 €- gehi B.E.Z. izango da (689.584,19€ %21eko BEZa barne), kontratua burutzeko epea sei hilabetekoa eta berme epea 5 urtekoa, betiere, administrazio-baldintza zehatzen orrian eta esleipendunaren proposamenean zehaztutakoen menpe.

VII.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIREKIN INFORMAZIOA ELKARTRUKATZEKO HITZARMENAREN D7 ERANSKINA.-



LAZKAOKO
UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udal honek lankidetzaz hitzarmena izenpetuta dute, bi erakundeek informazioa elkartrukatzeko. Hitzarmen hori izenpetzea 2014ko martxoaren 7ko osoko bilkuran onartu zen eta hitzarmena 2014ko urriaren 15ean izenpetu zen.

Hitzarmen horrek hainbat eranskin ditu, jasotzen dituen hainbat informazio gai edo motaren arabera, eta orain beste eranskin bat onartzea planteatzen da, D7 eranskina hain zuzen ere.

D7 eranskin honek Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta ahalbidetuko luke.

Udal honek informazio horretara heltzeko aukera izatea oso komenigarri ikusten da, sarrera erregistro elektronikoaren ondorioetarako.

Hau guztia honela izanda, eta gaia Gobernantza batzordean informatua izan ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordio hauek hartu ditu:

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin informazioa elkartrukatzeko hitzarmenaren D7 eranskina onartzea.
- 2.- Alkatea ahalduntzea hitzarmenean eranskin hau sartzearen izenpetzea egiteko.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zapiak eta hamahiru direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO
UDALA